

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa arrakastatsua izan dadin, beharrezkoa da hainbat baliabide izatea. Alde batetik, fisikoak, bestetik, intelektualak, eta amaitzeko, eta ez horregatik garrantzi gutxiagokoa, finantzarioak. Hauen bidez egituratutako elkarteak da eta lanerako derrigorrezkoak izango diren elementuak lortuko ditugu.


Esan bezala, funtsezko baliabide fisikoak oso garrantzitsuak dira gure proiektua aurrera eramanez ahal izateko, hauek gabe ezin genezake aurrera jarraitu. Baliabide fisikoak aipatzean, logikoa denez, gure negozioa arrakastaz eta lanez burutzeko gauzarik garrantzitsu eta funtsezkoenetako bat gure lokala da. Lokala ezinbestekoa izango da gure erabiltzaileei “leku seguru” bat emateko, eta bertan proposatzen ditugun jarduerak egin ahal izateko. Argi dago lokal bat aurrera eramateko beharrezkoa dela hainbat baliabide izatea, kasu honetan funtsezkoenak, hala nola ura, gasa eta elektrizitatea. Hiru baliabide horiek ez bagenitu, ezinezkoa litzateke gure negozioa edo enpresa aurrera eramatea.



Baliabide fisikoekin bukatzeko, gure elkarteak hainbat jolas egingo ditugu. Batzuetan ez da beharrezkoa izango materialik erabiltzea, aldiz, beste batzuetan bai. Beraz, ekintza hauetarako, esate baterako, baloiak, mahia-jolasak, petoak beharko ditugu.

Horrez gain, teknologia oso garrantzitsua izango da, honi esker publizitatearen diseinua egin ahalko dugulako, eta honetaz baliatuz sare sozialen bitartez gure elkarteak publizitatu; gainera gure erabiltzaileekin edozein unetan kontaktuan matentzeko lagungarria da.

Baliabide intelektualak berriz, hauek izango dira: garrantzitsuena, gure erabiltzailekiko harremana konfiantzazkoa izatea da, hau da, guk ez badugu erakusten gure erabiltzaileengan dugun balorea, ez dugu zer eginik, haiek pentsatuko baitute haiei eskainitakoa ez dela kalitatezkoa edo ez duela inolako garrantzirik. Honetan trebetasun handia dute Ane Miren, Oier eta Enaitzek.



Erabiltzaileekin komunikatzeko abilezia ere egon beharko da, hots, publizitatea egiteko, bezorokiko hitz-jarioa izatea oinarritzkoa izango da, hau da, hitz egiteko erraztasuna izatea. Horretan, Maren, marketineko ikaslea, arduratuko da, izan ere Marketinak eta publizitateak lotura estua dute. Gainera, gai hauek gustuko dituen, honen inguruan, ikastaro asko egin izan ditu, esate baterako, Inbound marketing, ikastaro berezi bat non marketing metodologiak proposatzen dituen marketing digitalaren

oinarri guztiak ikasten dituzun.

Publizitatea alde batera utzita, erabiltzaileen arazoetaz jakintza izatea ere beharko dugu, izan ere, hori gabe ez dugulako lortuko haiek konbenitzea zein berezia eta garrantzitsua den gure elkartean eskainiko dugun laguntza, ondorioz jendearekin gertukoak izango gara eta konfiantza minimo bat sortu beharko dugu. Oier Enaitz eta Ane arduratuko dira horretaz. Oier eta Enaitz gehiago zentratuko dira gizarte lanean, gai horri lotuta daudelako eta horretarako ikastaro batzuk egin dituztelako. Anek arreta gehiago jarriko du psikologian, abilezia baitu besteen azalean jartzeko eta erabiltzaileak ulertzeko. Anek, erabiltzaileen giza portaera ulertzen eta haien emozioak eta arazo psikologikoak kudeatzen laguntzea du helburu nagusizat. Hainbat ikuspegi eta teknika erabiliko ditu arazo emozional ugari ulertzeko eta tratatzeko, hala nola, antsietatea, depresioa, estresa, besteak beste. Gainera, bere familiaren aldetik, psikologian espezializatuak dauden hainbat pertsona daude, bere osaba alegia. Oier eta Enaitzek aldiz, gizarte lanean zentratuko dira. Gizarte-langileek egoera zailetan dauden pertsonen laguntzen diete, laguntza emozionala, aholkularitza, eta baliabideak eskainiz.



Amaitzeko, baliabide intelektualen barruan, garrantzitsuenetakoa, kontuetaz arduratuko den pertsona Leire izango da, kalkuluetan trebetasun handia du.. Gainera, lokalaren antolaketa izateko ere abilezia funtsezkoa da, beraz oso antolatua eta ordenatua den pertsona beharrezkoa dugu enpresan eta honetan ere Leire arduratuko da, bi lan hauek bikain ematen zaizkio Leireri.

Azkenik, baliabide finantzarioak izango ditugu. Proiektu bat martxan jartzeko beti diru kantitate bat jartzea beharrezkoa da. Beraz gure elkarteko hasierako gastuak ordaintzeko, bakoitzak diru-kopuru bat jartzea egokiena dela uste dugu. Gutako bakoitzak 4000€ jarriko ditugu gure enpresaren lehen pausuak gauzatzeko, eta, 5 langile garenez, 20.000€ izango ditugu. Horrez gain, Donostiako Udaletxetik ere laguntzak jasoko ditugu; izan ere, gure zerbitzua gizarteari laguntzeko egina dago eta dohain eskainiko dugu. Beraz, guk jarriko dugun diruarekin, udalak eta enpresa pribatuek emandako diru langutzeekin, gai izango gara gure proiektua burutzeko.